

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Hogei bat zentrotako mila ikasle parte hartzen ari dira Berrikuntza, Sormen eta Ekintzaitzaren V. Jardunaldietan

Iruñeko Pio XII.aren etorbideko Civican-en eta Tuterako ETIn egingo dira datorren ostiralera arte (apirilak 29)

Astelehena, 2016.eko apirilak 25

Caja Navarra fundazioak eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak Berrikuntza, Sormen eta Ekintzaitzaren Jardunaldien bosgarren edizioa abian jarri dute; astelehen honetan, apirilak 25, hasi eta hilaren 29an amaituko dira. Jardunaldiak Caja Navarra fundazioaren zentro soziokulturalean egingo dira, Iruñeko Pio XII.aren etorbideko Civican-en, apirilaren 26ko jardunaldian salbu; azken egun horretan, Tuterako LHI ETIn egingo da.

Jardunaldi horietan, Nafarroa guztiko hogei bat ikastetxe parte hartzen ari dira eta Goi Mailako lehen zikloko mila ikaslek baino gehiagok. Helburua berrikuntza, sormena eta ekintzaitza Nafarroako Lanbide Heziketan sustatzea da eta, beraz, ikasleentzat nahiz ziklo horietako profesionalentzat beraientzat da. Ekimen aitzindaria da, eta gaur egun ez da beste autonomia erkidegoren batean egiten.

Metodologia berriak LHko ikasleei hurbiltzea da kontua; hala, jarduera ekintzailearen aurrean beren eskumenak garatu ahalko dituzte, berrikuntza eta sormenaren bidez. Horretarako, adituen hamaika tailer eta bi hitzaldi egiten dira, eta gai horri buruzko ikuspegi oso bat eskaintzen dute.

Jardunaldi horien ordutegia 09:00tatik 13:30era izango da. Astearteko, apirilaren 26ko jardunaldia Tuterara eraman nahi izan da proiektu hori Nafarroako beste zonalde batzuetara hurbiltzeko. Tailer eta hitzaldiek eskaintzen dituzten gaietako batzuk, honako hauek dira: identitate digitala, *smartphone*-aren erabilera, komunikatzeko trebetasunak, sormen-teknikak edo enplegua bilatzeko estrategiak.

Hitzaldiak astelehenean, hilak 25, eta asteazkenean, hilak 27, emango dira 19:00etan eta 19:30ean, hurrenez hurren. Ekintzaitzako aditu Javier Iriondok eta sare sozial eta hezkuntzako aditu Diana Gonzalezek emango dituzte irakasleentzat eta oro har edonorentzat diren hitzaldi horiek.

Inaugurazio-ekitaldia gaur, astelehena, 09:00etan egin da Civican-en, eta itxierakoa toki berean egingo da ostiralean, apirilak 29, 13:00ean. Jardunaldi hauen laguntzaileak honako hauek dira: CEIN, ANEL, Nafarroako Merkataritza Ganbera, Gosearen Aurkako Ekintza eta Navarra Televisión.